



## Inoizko Korrikarik erraldoi eta anbiziotsuena izan dela nabarmendu dute antolatzaileak

“Beste behin, euskararen herriak Euskal Herri osoko errepide eta kaleak hartu ditu. Itzela izan da. Argi geratu da hemen badagoela komunitate oso bat, konplexurik gabekoa. Ez du onartzen kontingentzia-planik euskararen normalizaziorako. Horrez ordez, egiazko trantsizio bat nahi du”, adierazi dute [Garazi Arrularen mezutik](#) zenbait adierazpen hartuz.

Irakurri gehiago [hemen](#).



## Euskal Konfederazioak babesa adierazi dio Gorka Roca Torre euskaltzaleari

Gorka Roca Torre [Herribiltzako](#) kidea Baionako auzitegian epaituko dute martxoaren 26an, kolektiboak Izpurako (Nafarroa Beherea) eta Donibane Garaziko zenbait osasun-etxetan egindako bi pintaketengatik, "seinaleetan lehenasuna euskarari eman" diezaioten eskatzeko. Gauzak horrela, Euskal Konfederazioak babesa adierazi dio.

Gorka Roca Torreri babes-agiria osorik irakurri [hemen](#).



## Euskararen kontrako oldarraldi judiziala salatu eta langileen zein herritarren eskubideak aldarrikatu dituzte

Euskalgintzaren Kontseiluak, ELAk eta LABek deituta, ehundik gora lagunek elkarretaratzea egin zuten martxoaren 6an Bilboko Foru Jauregian, Auzitegiek euskararen ezagutza eskatzea "diskriminatzailea" dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiko 227 lanposturen egonkortze, promozio eta esleitze prozesuak baliogabetu dituztela salatzeko.

Adierazpena irakurri [hemen](#).



## "Euskararen ARritmia" liburua argitaratu du Miren Mujikak

Zumarragako Ospitalean euskararen eta generoaren analisi bateratua egiten duen "Euskararen ARritmia" liburua argitaratu berri du Miren Mujika Garate erizainak. Ikerketa kualitatiboaz baliatuz, osasun-sisteman emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna aztertzeko urrats bat egin du bere egileak lan honetan, hizkuntzaren (euskararen) aldagaia txertatuz.

Irakurri gehiago [hemen](#).



## Pediatría Topaketak egingo dituzte apirilaren 11n Iurretan

Apirilaren 11n, XVI. Pediatría Topaketak egingo dira Iurretan, Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatría Elkarteak eta Euskal Herriko Pediatría Elkarteak antolatuta. OEE Osasuna Euskalduntzeko Elkarteak izango da laguntzaileetako bat. Apirilaren 10era arte dago izena emateko aukera.

Informazioa eta izen-ematea [hemen](#).

Idazkaritza: 944 00 11 33 - [oe@oegunea.eus](mailto:oe@oegunea.eus) - [www.oegunea.eus](http://www.oegunea.eus)